

# Euskaltzaiñideak

Miembros de la Academia de la Lengua Vasca.  
Membres de l'Académie de la Langue Basque.

1920

---

## Euskaltzaiñak.—Euskaltzaiñ deduzkoak.—Urgazleak.

Euskaltzaindia'ren Batzorde ta ardurak.

Titulares.—Miembros de honor.—Correspondientes.  
Comisiones y cargos de la Academia.

Titulaires.—Honoraires—Correspondants.  
Commissions et charges de l'Académie.

---

## Euskaltzain-Idaztelestia.

Noticia bibliográfica de académicos.  
Notice bibliographique des académiciens.

---

## Gure Ilak.—Nuestros difuntos.—Nos morts.

# O A R A

Gure euskal oitura zaařen araura, norbaitek<sup>t</sup>, berekin, adiskidearen etxera ařotz bat daramanean, etxeiko nagusiari, nor dakaf-kion esan oi dio.

Ořelaxe niri ere, irakuřle maitea, nere euskaltzaiñkideen lanak ezagutarazteria noalarik, lenik, ařotz oriek nortsu eta nolakoak diran ta ze lanak bururatu dituzten, xee xekki esan beař nizula, gogoratu zait.

Egikizun zailxkoari lotu nakiola aitořtu beař badet ere (lorean sasipean bezala askok beren gauzak gořde oi dituztelako) nere lankide maiteen lore oriek ikeřtzeak atsegin samiñak eman dizkida edozeiniek eřex asma dezake.

Nere lagunen lanxko abar orik biltzera antustea nakařela iňoři gogoratu balezaio, asmo txař ori nere gain bakařik egotzi dezala esango nioke, nere kideak ořtara etořarazteak eman dizkidan neke izeřdiak nik badakizkit-eta.

Onek baňo lotsa aundiagoa ematen dit, gure lankide iřak nik aiň labuř eta otz emen goresteak. Bizi diraneri bezala obian datza-zenei, bere goragařiak banaka-banaka ezin aitořarazi dizkiet. Iainkoaren ařgiak xoil xoilik orien len isilak ikeřtu ditu, ta Beraren Ospe amaigabegoan ediro dute gizonen oroimenak ezin eman dezakikeen sari betikoa.

PIERRE LHANDE, S. J.

## EUSKALTZAIN KIDEAK

Miembros de la Academia de la Lengua Vasca  
Membres de l'Académie de la Langue Basque.

1920'ko urílaren 1'ean.

### I.—EUSKALTZAINAK.—Académicos de número.—Membres titulaires.

RESURRECCIÓN MARÍA DE AZKUE, apaiza, Buru (1918'ko irail 5'ean, Oñati'ko Batzañean, aitatua). Zuzenbidea: Campo Volantín, 15, edo: Ribera 18. Bilbao.

SEVERO DE ALTUBE (1920'ko garagil 22'an autatua). Zuzenbidea: Guernica, Vizcaya.

ARTURO CAMPIÓN (1918'ko irail 5'an, Oñati'ko Batzañean aut.). Zuzenbidea: Chapitela, 19. Pamplona, edo: Villa Emilia-enea, San Sebastián.

LUIS DE ELEIZALDE (1918'ko irail 5'an, Oñati'ko Batzañean aut.). Zuzenbidea: Châlet Gainzuri, Iralabarri, Bilbao.

JUAN BAUTISTA EGUZKITZA, apaiza, (1919'ko irail 21'ean aut.). Zuzenbidea: Lequeitio, Vizcaya.

A. DÁMASO DE INTZA, O. M. C. (1920'ko uztail 23'an aut.), Zuzenbidea: Convento de PP. Capuchinos, Pamplona.

RAMÓN DE INTZAGARAI, apaiza, (1919'ko irail 21'ean aut.). Zuzenbidea: Jáuregui, 18, San Sebastián.

GEORGES LACOMBE (1920'ko uztail 23'an aut.). Zuzenbidea: Boulevard St. Michel, 137, París, edo: Villa Izarra, Route de Biarritz, Bayonne.

MARTÍN LANDERRECHE, apaiza, (1919'ko uztail 5'an aut.). Zuzenbidea: Espelette, Basses Pyrénées.

A. PIERRE LHANDE, S. J. (1919'ko irail 21'an aut.). Zuzenbidea: Collège St. Louis de Gonzague, Toulouse, edo: Murua-enea, Hernani.

- A. RAMÓN DE OLABIDE, S. J. (1919'ko irail 21'an aut.). Zuzenbidea: San Ignacio de Loyola, Azpeitia.  
JULIO DE URQUIJO (1918'ko irail 5'an aut.). Zuzenbidea: Centenario, 1, San Sebastián, edo: Urkijo-Baita, St. Jean de Luz, Basses-Pyrénées).

II. DEDUZKOAK.—Miembros de honor. Membres d'honneur.

- HUGO SCHUCHARDT, Gratz'ko Goi-Ikastetxe'an irakasle izana. (1919'ko uñil. 26'an izendatua). Zuzenbidea: Fuxgrasse, 30, Graz, Austria.  
JULIEN VINSON, Paris'ko Eguzkialdeko Izkuntzikastetxe'an irakasle izana. (1919'ko uñil. 26'an izendatua). Zuzenbidea: Rue de l'Université, 86, Paris.  
C. C. UHLENBECK, Leyde'ko Goi Ikastetxe-an irakasle izana. (1919'ko uñil. 26'an izendatua). Zuzenbidea: Rynsburger weg, 24, Leyde, Holanda.

III.—URGAZLEAK.-Correspondientes.-Membres correspondants.  
1919'ko uñilaren 26'an izendatuak.

I. *Arabařak:*

- ODÓN DE APRAIZ, (Vitoria, Alava).  
LUIS GONZÁLEZ ECHAVARRI, (Banco de España, 3, Bilbao).

II. *Bizkaitarřak:*

- FEDERICO DE BELAUSTEGIGOITIA, (Durango, Vizcaya).  
JUAN CRUZ DE IBARGUCHI, apaiza, (Eibar, Guipúzcoa).  
GABRIEL DE MANTEROLA, apaiza, (Eibar, Guipúzcoa).  
NAZARIO DE OLEAGA, legegizona, (Correo, 27, Bilbao).  
AMANCIO URRIOLABEITIA, (Amorebieta, Vizcaya).  
PABLO DE ZAMARRIPA, apaiza, (Gática, Vizcaya).  
N. ....  
N. ....

### III. *Gipuzkoarak:*

TORIBIO ALZAGA. (Academia de L. y Declam. vasca, San Sebastián).

A. PEDRO DE LARDIZABAL, S. J., *Jesusen Biotzaren Deya*'ren lankidea. (Colegio de la Merced, Burgos).

JUAN BTA. LARRETA, *Euskal-Esnalea*'ren lankidea. (Azelain, Sorabilla, Guipúzcoa).

MANUEL DE LECUONA, apaiza, Gazteiz'ko Apaizgaitegi'an euskera-irakaslea. (Seminario Conciliar, Vitoria, Alava).

ISAAC LOPEZ MENDIZABAL, legegizona. (Tolosa, Guipúzcoa).

GREGORIO DE MUJICA, *Euskaleriaren alde*'ren ártezkaria. (Caja de Ahorros Provinc., Palacio de la Diputación, San Sebastián).

PEDRO MIGUEL DE URRUZUNO, apaiza. (Mendaro, Guipúzcoa). JOSÉ CINCUNEGUI, sendalaria. Rentería, Guipúzcoa).

### IV. *Naparlařak:*

TEODORO ARBURUA, apaiza. (Echalar, Navarra).

A. CELESTINO DE CAPARROSO, O. M. C. (Convento de PP. Capuchinos, Tudela, Navarra).

A. EUSEBIO DE ECHALAR, O. M. C. (Colegio de N. S. del Buen Consejo, Lecároz, Navarra).

FERMÍN IRIGARAI, sendalaria. (Pamplona, Navarra).

A. NICOLÁS ORMAECHEA, S. J., *Jesusen Biotzaren Deya*'ren lankidea. (Colegio de San Fco. Javier. Oña. Burgos).

### V. *Benapartařak:*

JEAN ETCHEPARE, sendalaria. (Les Aldudes, Basses-Pyrénées).

JEAN ELISSALDE, apaiza. (Vicaire à Uztaritz B. Pyrénées). 1920 garil, 25'eán izendatua.

JULIEN HÉGUY, apaiza. (Briscous, Basses-Pyrénées).

FRÉDÉRIC DE ST. JAYME, aldun izana. (Villa Zaldi-Choury, St. Palais. B. P.)

VI. *Lapurtařak:*

JEAN BTE. DARANATZ, apaiz kalonyea, Bayona'ko Apaizpikutegi'ko idatzaiña (Secrétariat de l'Evêché, Bayonne).

PIERRE DOURISBOURE, sendalaria. (St. Pée sur Nivelle, Basses-Pyrénées).

JEAN SAINT-PIERRE, apaiza, Bayona'ko Apaizgaitegi'an irakaslea (Grand Séminaire, Bayonne, Basses-Pyrénées).

N. ....

VII. *Zuberotarăk:*

JEAN BTE. CONSTANTIN, irakasle izana, *Eskualduna*'ren langidea. (Tardets-Sorholuz, Basses Pyrénées).

FÉLIX LARRIEU, sendalaria, *Ziberuko Egunaria*'ren aítezkaria. (Montfort l'Amaury, S. et O.)

JUSTIN DE MENDITTE, apaiza. (Tardets-Sorholuz, Basses-Pyrénées).

JEAN URRUZTOY, apaiza. (Barcus, Basses-Pyrénées).

VIII. *An-emiēngoaak:*

A. MANUEL DE ARRIANDIAGA, M. I. C. M. (Buen Suceso, 18, Madrid). Izendatu zan 1919'ko azar. 13'an.

JEAN BTE. DARRICARRERE. (Ancien Capitaine des Douanes, Bayonne. B. P.) izendatu zan 1919'ko urri. 26'an.

EDWARD-SPENCER DODGSON. (Jesus-College, Oxford. Inglaterra). Izendatu zan 1919'ko azar. 13'an.

CARMELO DE ECHEGARAY. Euskalériko edestilaria. (Guernica, Vizcaya). Izendatu zan 1919'ko azar. 13'an.

HENRI GAVEL, Bayona'ko irakaslea. (Châlet du Fronton, Place Lamothe, Anglet. B. P.) Izendatu zan 1919'ko urri. 26'an.

ALBERT LÉON, Baiona'ko Zuŕkinde irakaslea. (Avenue Marthe-Jean, Les Arènes, Bayonne. B. P.).

- TH LINSCHMANN, Berlin'go *Euskara*'ren átezkari izana. (Herzogl. Bibliothekar, Meiningen, Alemania). Izendatu zan 1919'ko azar. 13'an.
- RAMÓN MENENDEZ-PIDAL, *España'ko-Erege-Izkeltzaindi*'ko kidea. (Centro de Estudios Históricos, Paseo Recoletos, 20, Madrid). Izendatu zan 1919'ko uñil. 26'an.
- J. SAROIHANDY, Paris'ko *Sorbonne*'n euskera-irakaslea. (Lycée Louis-le-Grand, rue St. Jacques, Paris (V)). Izendatu zan 1919'ko uñil. 26'an.
- HERMANN URTEL, Hamburgo'ko irakaslea. (Eilbecktal, 9, Hamburg (23)). Izendatu zan 1919'ko azar. 13'an.
- HEINRICH WINKLER, Breslau'ko irakaslea. (Schuchardt'en bidez). Izendatu zan 1919'ko azar. 13'an.



## Euskaltzaindia'ren Batzorde ta Ardurak

Comisiones y cargos de la Academia.  
Commissions et charges de l'Académie.

### I. BATZORDEAK

I. *Ikeñsaila*.—Comisión de investigación.—Commission de recherches.

Buru: J. de Urquijo (1920'ko urtarila'ren 8'an izendatua).

II. *Yauñsaila*.—Comisión tutelar.—Commission de propagande.

Buru: Arturo Campión ta Pierre Broussain (G. b.) 1920'ko urtaril. 8'an izendatuak.

III. *Iztegisaila*.—Comisión del vocabulario.—Commission du dictionnaire.

Buru: R. M. Azkue. — Kide: P. Broussain (G. b.), R. Olabide. (1920 otsail. 16'an izendatuak).

IV. *Sariketasaila*.—Comisión de premios. Commission des prix.

Kide: R. Intzagarai, P. Lhande, F. de Belaustegigoitia, urg. (1920, otsail. 16'an izendatuak).

V. *Lufizenzaitzailea*.—Comisión de toponimia.—Commission de toponymie.

Kide: R. de Olabide, N. de Oleaga ta Odon Apraiz urg. (1920 otsail. 17'an izendatuak).

### II. ARDURAK

Buru: R. M. de Azkue (1919'ko uñil. 5'ean izendatua).

Idatzaiñ: L. de Eleizalde (egunean berean).

Idazki ta gutuntzaiñ: J. de Urquijo (egunean berean).

Diruzaiñ: S. de Altube (1920'ko ioñail. 26'an izendatua).

## EUSKALTZAIÑ-IDAZTELESTIA

Noticia bibliográfica de los académicos.

Notice bibliographique des académiciens.

AZKUE ta Aberasturi (Resurrección María de).

JAIOTZA, Lekeitio'n, 1864'eko dagonilaren 5'ean.

IKASKINTZAK: Lekeitio'n, «Náutica» ikasi zuen 1877'tik 1880'era; Bilbo'n «Bachillerato»-a, 1877'tik 1881'era; Gazteiz'en «Teología», 1881'tik 1885'era; Salamanka'n «Sagrada Escritura» ta «Derecho canónico»-a, 1885'etik 1888'ra. Bilbo'n ta Bruselas'en asitako eres-abestikaskuntzak, Kolonia'ko «Conservatorio»-an amaitu zituan, 1909'an.

AGEKUN ETA EGINBIDEAK. Apaiz egin izan zan 1888'ko garilean; «doctor en teología», Salamanka'n 1892'an; euskal-irakasle, Bilbo'ko «Instituto»-an, 1888'an ta gerotzik alki aフトan dago.

IDAZKIAK: 1892'an «Euskal-Izkindea», 364 ofi in 4.<sup>º</sup>; 1897'tik 1899'ra *Euskalzale* argitaratu zuan; 1895'ean «Bein da betiko» (leyenda bizkaina) 128 ofi in 4.<sup>º</sup>; 1896'an «Método práctico» ta «Clave de temas»; «Vizkaytik Bizkaira» (libreto y música de zarzuela bilingüe en tres actos); 1897'an «Eguzkia nora» (zarzuela bilingüe en dos actos); 1898'an «Colonia inglesa» (Comedia bilingüe); «Manual de conversación»; «Sasi-eskola» (zarzuela infantil bizcaina); 1899'an «Pasa de chimbos» (zarzuela bilingüe); «Tsrirristadak» (fantasías en bizkaino y gipuzkoano); 1901'ean «La música popular vascongada» (conferencia y catorce melodías populares harmonizadas por el conferenciante); 1901'ean «Iesusen Biotzaren ilà» (Bizkai'ko euskeraz); oukiaba batzuk, «Katalintso», «Ahuzky», «Seaska utsa», «Recordare», «Nostalgia» (zortziko), el «Rosario»,

«Cánticos al Sdo. Corazón, á la Virgen María y San José» (en vascuence bizkaino y música polifónica), «Letanías al Sagrado Corazón», ta abar; 1905'tik 1906'era «Diccionario vasco-español-francés» (Tours, Mame, in 4.<sup>º</sup> eineko bi liburu aunditan); 1910'ean «Ortzuri» (ópera en tres actos, en dialecto guipuzcoano); 1912'an «Urlo» (ópera en tres actos, dialecto guipuzcoano); 1919'an «Diccionario español-vasco» (jáfaiteko da); 1918 «Prontuario de lengua vasca» ta «Aitaren bildur» (zarzuelita infantil); «Diccionario de bolsillo»; dos «Conferencias acerca de la música popular vasca»; 1919'an «Ardi galdua» (novela en guipuzcoano); dos «Conferencias sobre fonética vasca». Eztakigun urte batean, Bayona'ko «Katichima» Bizkai ta Gipuzkoa'ko euskerera biútu-ta, álgitaratu zuan.

Euskaltzaindua izan zan Oñati'ko Batzafean 1918'gañen urtean, guzien abotsez, ta Euskaltzaindia'ren Buru aitatu zuten gure len batzafean, ondoren dakuskezun antzera.

---

ALTUBE ta Lertxundi'ta Sever.

JAIOTZA, Añasete'n (Mondragón), Gipuzkoa'n, 1877'g. azaroaren 8'an.

IKASKINTZAK: Añaseten beftan 1895'g. urtetik 1902'g. urteraiño.

AGEKUN TA EGINBIDEAK: 1915'g. urteaz gero, Geñika'ko «Alkaŕtasuna» deritzaion su-izkiñ-oletako buru; 1902'tik 1918'rainero, lenik Geñika'ko Eres-batz, ta gero beftako Abes-Batza'ren áfteztzailea.

IDAZKIAK: 1913'g. urteko *Euskal-Esnalea*'n: «—Z, —tzaz, —zaz eta—taz atzizkiak». —1919'ko otsailan, aldizkingi ortan bertan asi zan «De sintaxis euskérica» izenazko lana argitaratzen, ta gero, 1920'an gutuntxo batean berextu zuan: «De sintaxis euskérica». Estudio publicado por vez primera en *Euskal-Esnalea*, sección euskérica de la Revista de cultura vasca *Euskalerriaren alde*. San Sebastián. Martín, Mena y C.<sup>a</sup>.

1920. — Euskerari buruz diañduen aldizkingi askotan idatzi du euskerari zegokion zerbait. Euskaltzaindu zan 1920'ko bagila 22'an.

ETXEA: Geñika'n, Gipuzkoa'n.

CAMPION, Arturo.

JAIOTZA: Iruña'n (Pamplona) 1854'eko oñila 7'an.

IKASKINTZAK: Lenak, Iruña'ko Huarte'ren ikastetxeen; bigañenak Oñati'ko Goi-Ikastetxeen; azkenak Madril'eko Goi-Ikastetxe Bañangoan (Universidad Central).

AGEKUN ETA EGINBIDEAK: Bi Legejakintzetan onetsia (Licenciado en Derecho civil y canónico). — Madril'ko Eñegeren «Academia de la Historia» ta «Real Academia de Ciencias morales y políticas» deritzaion batzafetako kide ufgazle. — «Eusko-Ikaskuntza»ren Buru ofdeko. — «Euskal-Esnalea»-ren Buru. — Iruña'ko udalkide izana. — Iruña'k Madril'eko Aldundi'ra bialdurikako aldun oia (Diputado á Cortes). — Iruña'ko Legekarien Batzañeko lege-gizona. · Bizkaia'ren izenean Madril'en Goi-Aldun (senador) izana. — Nabarra'ko «Comisión de Monumentos Históricos y Artísticos» delakoaren buru. — «Euskalzaleen Biltzarra»-ren Buru-oi.

IDAZKIAK. Emen dauzkatzu:

«Consideraciones acerca de la cuestión foral y los carlistas en Nabarra». — Madrid, Gregorio Yuste, imp., 1876. (Agotada.)  
«Orreaga», balada escrita en dialecto gipuzkoano, acompañada de versiones á los dialectos bizkaino, labortano y suletino, y de diez y ocho variedades dialectales de la región baskongada de Nabarra, desde Olazagutía hasta Ronkal, precedida de una introducción y seguida de observaciones gramaticales y léxicas. — Pamplona, imp. y lib. de Joaquín Lorda, 1880. (Agotada)  
«Ensayo acerca de las leyes fonéticas de la lengua euskara». — San Sebastián, Hijos de Baroja, imp., 1883.

- «Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara».—Tolosa, E. López, ed., 1884.
- «Víctor Hugo», semblanza.—Tolosa, E. López, ed., 1885. (Agotada.)
- «D. García Almoravid» (Crónica del siglo XIII).—Tolosa, E. López, ed., 1889.
- «Euskariana» (Historia á través de la leyenda).—Bilbao, Biblioteca Baskongada de Fermín Herrán. (Agotada.)
- «Euskariana» (Fantasía y Realidad).—Bilbao, Biblioteca Baskongada de Fermín Herrán. (Agotada.)
- «La batalla chica del señor Nocedal».—Pamplona, José Erice, imp. 1893.
- «Euskariana» (Algo de Historia).—Bilbao, Biblioteca Baskongada de Fermín Herrán. (Agotada.)
- «Blancos y Negros» (novela).—Pamplona, Erice y García, imp. 1899.
- «Euskariana» (Algo de Historia, 2.<sup>º</sup> volumen).—Pamplona, Erice y García, imp., 1905. (Agotada.)
- «Discursos políticos y literarios».—Pamplona, Erice y García, imp., 1907.
- «Conferencia acerca del nacionalismo», dada en Gernika el 19 de Abril de 1908.—Gernika, Antonio de Egurrola, imp., 1908.
- «La Bella Easo» (novela), con prólogo de don Francisco Gascue, dos tomos.—Pamplona, Jesús García, imp., 1909.
- «Euskariana» (Algo de Historia, volumen 3.<sup>º</sup>).—Pamplona, Jesús García, imp., 1915.
- «Euskariana» (Fantasía y Realidad, volumen 2.<sup>º</sup>).—Pamplona, Jesús García, imp., 1918.

Se publicarán (D. v.) por el orden de su lista las obras siguientes:

- «Los Orígenes del Pueblo euskaldun».—Celtas, Iberos y Euskaldun: volumen I (Prólogo. — Parte primera: Las noticias de la antropología y de la etnología.)
- «Euskariana» (Algo de Historia, volumen 4.<sup>º</sup>)
- «Euskariana»,—Lengua y literatura euskaldun.
- «No Euskariana» (Miscelánea crítica sobre arte é historia).

*En preparación*

«Los Orígenes del Pueblo euskaldun».—Celtas, Iberos y Euskalros: volúmenes II y III.

«La muerte de la Nación nabarra». (Los partidos españoles en el antiguo Reino pirenaico.)—Volumen I: Los orígenes del mal; el enciclopedismo; la guerra contra la República francesa; la guerra contra Napoleón.—Volumen II: Realistas y constitucionales; carlistas é isabelinos.

«Euskariana» (Algo de Historia: volumen 5.<sup>º</sup>)

«Vocabulario histórico de la lengua euskara».—Los vestigios y reliquias del baskuenze medioeval.

«León XIII en España».—Contribución á la historia de las discordias entre los católicos.

Gañera, bere gaztetasunean, Madril'eko *La Paz*, Bartzelona'ko *La España Regional*, Bilbo'ko *El Noticiero Bilbaino* ta *La Unidad Vasco-Navarra*, Iruña'ko *El Eco de Navarra*, *El Arga*, *Lau-Buru* ta *El Aralar* agerkarien lankide ziñ-ziñazana da.

Euskaltzaindu zan Oñati'n, 1918'ko Batzañean, guzien abotsez.

ETXEA: Neguan, Iruña'n (Chapitela, 19), ta udaz Donostia'n (Villa Emilia-enea, Ategorrieta).

---

EGUZKITZA'tar Jon.

JAIOTZA: Lemona'n (Bizkaia'n), 1875'eko azilaren 28'an.

IKASKINTZAK: 1879'tik 1900'era, lenik Amorebietan ta gero Gasteiz'ko Apaizgai ikastetxean. Apaiztu zan 1899'ko lotaziaren 21'an.

AGEKUN TA EGINBIDEAK: Jainkojakintzarako onetsia (Licenciado en teología). Lekeitio'ko ikastetxean irakasle.

IDAZKIAK: 1915'an: «Garbitokiko arimaen ilà», Sarda ta Salvany jaunak eŕderaz idatzi ebanetik euzkeraldua. Grijelmo Alaŕgun eta Semeen iraŕkolean, Arbolancha, Bilbao, 112 oŕitako gutun in-32 einekoia.

1919'an: «Andra Maria'ren Loretako Ilà» (*Jaunkoiko-zale*'ren idaztijak, II, 2) *Jaungoiko-Zale*'ren iraŕkolean. Zoŕnotza, Bizkaia. 290 oŕitako gutun in-32 einekoia.

*Jaungoiko-Zale* aldizkingiaren aŕteztzaileetatik bat da. Euskozipaŕingi askotan idatzi du. Euskaltzaindu zan 1919'ko iraila 21'an.

ETXEA: Lekeitio'n, Bizkaia'n.

---

ELEIZALDE eta Breñosa'tar Koldobika.

JAYOTZA: Beŕgara'n (Gipuzkoa). 1878'ko bagila 9'an.

IKASKINTZAK: Biga en ikaskintza (Segunda enseñanza): Beŕgara'n (1887-91). Ikastolakoak (Instituto): Zaragoza'n (1891-94). Goi-ikaskuntza (Enseñanza Superior: Facultad de Ciencias) Zaragoza'n (1895-98). eta Madrid'en (1898-1900). Escuela Ingerieros Industriales, Madrid (1902-05).

AGEŔKUN ETA EGIBIDEAK: Doctor en Ciencias; Catedrático del Instituto de Vitoria, Inspector de enseñanza de la Diputación de Bizkaya.

IDAZKIAK: «Apuntes para una teoría de las figuras circulares» (Madrid, 1904).

«Raza, lengua y nación vascas» (Bilbao, 1911).

«Morfología de la conjugación vasca sintética» (Bilbao, 1913).

«Países y razas» (Las aspiraciones nacionalistas en diversos pueblos) (Bilbao, 1914).

«Gurutza Deunaren Bidea» (Amorebieta, 1917).

«Landibar» Cuadros noveléscos del País Vasco. (Vitoria, 1918).

«Cuatro conferencias» (Bilbao, Euzko Argitaldaria, in-8 ein. 226 oŕfi.

«La lucha por el idioma propio». (Bilbao, Rachelt, 1919). >  
Gañera, euskerari dagozkion lanak argitaratzen ditu «Euzkadi»-n,  
«Jel»-en, «Revista Internacional de los Estudios Vascos» de-  
lakoan, «Euskal-Esnalea»-n, eta abar.  
Euskaltzaindu zan Oñati'ko Batzafean, guzien abotsez, 1917'ko  
urtean.

ETXEA: Irala-baři, Chalet «Gainzuri». — Bilbao.

---

INTZAŕ Damaso aba (Jaiotetxean zegoala: Olasagare ta Zubilla-  
ga'tař Mikel).

JAIOTZA: Intza'n, Araiz'ko ibařean, Nabaña'n, 1886'ko uztaila 19'an.

IKASKINTZAK: 1900'tik 1902'ra Iruñan; 1902'tik 1907'ra Tudela'n;  
1907'tik 1912'ra Iruña'n.

Kaputxinoen Lekaidia'n sartu zan 1902'an. Apaiztu zan Iruña'n,  
1910'eko negila 17'an.

IDAZKIAK: 1913. «Martín zintzoa», ipuia, Euskal Èsnalea'k sari-  
tu-ta, bere agekarian, ilbeltza'ko zenbaikian afgitaratu zuan.  
1916. «Ordikeriaren kalteazkoak», lenik «Euskal-Esnalea»-an, ta  
gero I. Lopez-Mendizabal'en «Euzkel-Egutegia»-n afgira  
emanak.

*Irungo Prantziskotara*, ta *Zeruko Argia* deritzaioten aldizkin-  
gien arteztzalea da. Izenordezkoetatik bat: «Kalpařegi».  
Euskaltzaindu zan Iruña'n 1920'ko uztaila 25'an.

ETXEA: Iruña'ko Aita Buruñurdunen Lekaidetxea.

---

INTZAGARAI ta Bastařarena, Èfamon.

JAIOTZA: Donostia'n 1878'ko Azila'ren 21'an.

IKASKINTZAK: Gazteiz'en Apaizgai-ikastetxean.

Apaiztu zan 1903'ko Lotaziaren 26'an.

AGERKUN ETA EGINBIDEAK: Bingen Deunaren Elizan, Donostia'n  
Apaiz-buru-urgazle.

IDAZKIAK: «Aizkorri» (olefkitxo saritua); «Umezurtza» (olefki sari-tua); «Afantzale batek itxasoari» (olefki saritua); «Ardo gal-gari» (irakuirkizun saritua); «Kulutix» (irakuirkizun saritua); «Zorion» (olefkia); «Ituñitxo» (olefkia); «Seme aberats» (olefkia); «Jerusalen! Jerusalen!» (olefkia); «Argi gutuna» (olefkia), ta beste olefki banatu batzuek.

Euskaltzaindu zan Donostia'n 1919'ko iraila 21'an.

ETXEA: Donostia'n, Jauregi, 18, 3.<sup>o</sup>.

---

LACOMBE, Georges.

JAIOTZA: Bayona'n 1879'ko urtariña 31'ean.

IKASKINTZAK: Paris'en ardetsi zuan «Licencié ès-lettres-philosophie» jakintza-bidea, ta «Ecole pratique des Hautes Etudes» delako ikastetxearen ikasle izan zan.

AGERKUN ETA EGINBIDEAK: «Société de Linguistique» Paris'koaren kide 1907'tik geroz.—«Institut français d'Anthropologie» bertakoaren kide auften (1920) egiña.—«Euskaltzaleen Biltzarra»-ren Buru deduzkoa.—«Cercle des études basques» Bayona'koaren jaitzaiile ta Buru ordekoia.—«Comité des fêtes basques d'Antoine d'Abbadie» delakoaren lankide — Guda kulturze ta Gudarien medailaduna.—«Revista Internacional de los Estudios Vascos» agekariaren idatzaiña.

IDAZKIAK: 1894'az geroz euskerari zegozkion idazki motxak, «Es-kualduna», «Journal de St. Palais», «Courrier de Bayonne»,

«Revue internationale des Etudes basques», «Bulletin de la Société de Linguistique» ta «Revue de Linguistique», agerkarien eun ta eunkaz eman diozka. Elizalde'ren «Dotrifia» na-paftař orain galdua dana biñargitaratzeko gaietan dago ta «Al-dudetako Eskuara», eskuetan daukan lanari urte askoz geroz jaŕaitzen zayo. Ibiili izan da Gratzen 1913'an Schuchardt'kiñ itzegiteko; San Remo'n 1913 ta 1917'an, Van Eys edo aren idazkiak ikusteko; ta Leyde'n, Uhlenbeck'kiñ mintzatzeko.

Euskaltzaindu da Iruñan, 1920'ko uztaila 23'an.

ETXEA: Neguan, Paris'en (Boulevard St. Michel 137) ta udan Bayona'n (Villa Izarra, Route de Biarritz) edo Aldudan (Les Aldudes par St. Jean Pied de Port, B.-Pyréneés.)

---

LANDERRECHE, Martin.

JAIOTZA: Busunaritz-Sarasketa'n, (Benabaeren) uztaila 26'an, 1842 gañen urtean.

IKASKINTZAK: Ahazpaŕne'ko ikastetxean, 1857'tik 1859'raño; Larresoro'ko apaizgai-ikastetxean, 1859'tik 1864'raño; Bayona'ko apaiz ikastetxean ta beñiz Laresoro'n 1864'etik 1869'raño. Apaiztu zan 1869'an, Irutasun-Donearen mezperan.

AGERKUN TA EGINBIDEAK: Irakasle, 1865'etik 1873'raño; Maule-Leixtaŕe'ko apaiz-ordeko 1873'tik 1875'raño; Oaŕeko apaizartzaíñ 1880'etik 1891'raño. «Euskalzaleen-Biltzaŕa»-ren idazlari betiereko da.

IDAZKIEN: 1892'tik geroz «Fedearen Propagazionea» deritzaion iru-ílabetetako berak euskeraratzen eta argitaratzen du.

1905'ean: *Aphurka zahar eta berri ahurtara bat eskuararen alde*. Bayonne, Imprimerie-Librairie L. Lasserre. 1905. 80 orítako gutun in-8 einekoa.

Argitaratzekotan dauka: «Grammaire basque». Bayona'ko «Cotier de Bayonne» eta «Eskualduna» agerkarietan idatzi du. Euskaltzaindu zan 1919'ko uñila 5'an.

ETXEA: Ezpeletan, Lapuñdi'n.

---

LHANDE ta Heguy, Pierre.

JAIOTZA: Bayona'n (Lapuñdi) 1877'ko uztaila 9'an.

IKASKINTZAK: Lenak, Bayona'n Iondoni Bernat'en ikastetxean (Collège St. Bernard). Bigañenak, Maule'n (Zubero) San Frantzes'en Ikastetxean (Collège St. François). Zuñjakintzarenak (Filosofia) Bayona'ko apaizgaitegian.—Gero Jesus'en Lagundia'n saftu zan. (1900).—Apaiztu zan Enghien'en (Beljika'n) 1910'eko agoñila 28'an.

EGINBIDEAK: Euskera irakasle Tolosa'ko Goi-Ikastetxean (Université de Toulouse, Faculté des Lettres).

- IDAZKIAK: A. EUSKERAZKOAK. 1904-1906 «Eskualdun Ona» Bayona'ko agerkarian, Zubero'ko euskeraz idatzitako idazki batzuk.—1915 *Gure orma zaña* (Oyarzun'go euskal jaietan 1915'eko dagonilaren 5'an egindako itzaldia) Donostian, Martin ta Mena'ren baitan, in 8'ko 8 ofi.—1919. *Bayona'ko, Leskarre eta Oloroñe'ko jaun Aphezkupiaren Githuna*, bere Diocesako jaun aphez eta khristier galthatzeko Familiak oro Iesusen Bihotz Sakratuari kountsekra ditian. Bayona'n, L. Lasserre, imprimariaren etxen in 16'eko 22 ofi.—1917. *Curutchet Apheza*. Johane Curutchet jaun aphezaren hil-mezan, Aita Lhande jesuitak eman dian mintzaldia, Onizen, arramaiatzaren 26'an. «Eskualduna» agerkarian emana, uztaila 5'an.—1920. *Euskera*. Euskaltzaindia'ren lanak I. (Ementxe).
- B. ERDERAZKOAK: 1895-1896 «Le Conseiller des familles» zeritzaison agerkarian argitaratu zituan bere len oleñkiak, ta »Le Patriote des Pyrénées« Pau'ko izpañingian bere len idazki motxak (Izen ordekoak: Nadi-Preherel, Petit-Pierre ta abaf)—1897. *Sur le Salve Regina*. Paraphrase de l'antienne liturgi-

que. Musique de Charles Bordes. Paris, Bureaux de la «Schola Cantorum», 5, rue Stanislas.—1903'tik 1913'raño «Le Messager du Cœur de Jésus», «La Revue Blanche de Castille», «Le grand Almanach Catholique», «L'Almanach de Pélerin» ta beste agerkari batzuetan argitaratu zituan iñoz gutun batean bildu ezzituan oleńki asko. Gero auxek izan ziran aren gutunak: 1908. *Autour d'un foyer basque*. Paris, Nouv. Lib. Nationale, in-16, 150 of.—1910. *L'Emigration basque*. Paris, Nouv. Lib. Nation., in-16, 298 of. (Carlos Pellegrini, Argentina'ko Efepublika'ko Buru-oiaren itzaufebatekiñ).—1912. *Jeunesse*. Paris, Beauchesne, in-16, 162 of; *Luis*, irakuńgaia. Paris, Plon Nourrit, in-16, 287 of.—Bera, olanderaz, Utrecht'en, 1913, Aita von Santen'ek biuńtua.—Bera, alemaneraz, Donauwörth'en Auf'en etxean, 1914, Karlos Schlesinger'ek biuńtua.—1913. *La Vocation d'Ignace de Loyola*. (Lieja'ko St. Gervais'en ikastetxeko eleizan egindako itzaldia) Bruxelles, A. Dewit, in-16, 36 of. Ofen spañerazko biuńkerabat uŕengo urtean, José Mújika ondańabiańaren eskuz «Euskalefiaren Alde»-an afgitaratu ta, gutuntxo batean jańi zan. (Donostia'n, Martin ta Mena'ren etxean, in-8 16 ofi).—1914. *Mirentchu*, irakuńgaia. Paris, Plon-Nourrit, in-16, 325 of.—Bera, spañeraz, Bilbo'ko «Euzko-Argitaldaria» baitan, 1917, A. P. Lardizabal'ek biuńtua.—1915. *Le prix du Sang*. Paris, Beauchesne, in-16, 137 of.—1918. *Trois Prêtres-Soldats*, an bertan, in-16, 235. of.—1918. *Mon petit prêtre*, an bertan, in-16, 250 of.—Bera olanderaz, 1920, Uitgevers-Maastrichtappij, in 8, 200 of. Paul Brand'ek biuńtua.—Bera, spañeraz, (A. Lardizabal egilearen eskuetan dago).—1919. *L'enseigne de vaisseau Auguste Lefèvre*. Paris, Beauchesne, in-16, 168 ofi. 1919, *Notre sœur latine, l'Espagne*. Etudes politiques et morales. Paris, Bloud' ta Gay'en etxean, in-16, 210 of.—1920 *Les Mouettes*, irakuńgaia. Paris, Plon-Nourrit, in-16, 325 ofi.

Gańera, emen dakańzkigun agerkarietan maiz idatzi du: «Eskualduna», «Euskalefiaren Alde», «Euzkadi», «Revue Internationale des Etudes Basques», «Jesúsen Biotzaren Deya», «Pueblo Vasco», «Liberté du Sud Ouest», «Etudes», «Revue pratique d'Apologétique», «Revue Latine», «Durendal» eta abań.

Euskaltzaindu zan Donostia,n, iraila 21'an.

ETXEA: Urtean, Tolosa Prantzikoan, Deun Luis Gonzaga'ren Ikastetxean.—Opoñ egunetan: Ernani'n, Murua enean.

---

OLABIDE'tar Eíamun.

JAIOTZA: Gazteiz'en, 1869'ko epaiña 15'an.

IKASKINTZAK: 1879'tik 1903'rainero.

Jesus'en Lagundi'an sartu zan 1884'eko azila 7'an. Apaiztu zan 1902'garen urtean.

IDAZKIAK: «Loyola'tar Eñeko Deunaren Gogo iñarkunak». Grijelmo Alargun eta Semen irañoolean.—Bilbao, 1914. «Gizasoña». E. López'enean. Tolosa, 1917. — «Josu-Kisto'ren Antzibidea». Leizaola. Donostia 1920. «Euskal-Esnalea», «Jesusen Biotzaren Deya», ta gañerako agerkari batzuen lankidea da.

Euskaltzaindu zan Donostia'n 1919'ko iraila 21'an.

ETXEA: San Ignacio de Loyola, Azpeitia, Gipuzkoa.

---

URQUIJO ta Ibarra, Julio.

JAIOTZA: Deusto'n (Bilbao), 1871'eko joñaila 3'an.

IKASKINTZAK: Deusto'ko Goi-Ikastolan.

AGEKUN ETA EGINBIDEAK: Bi Legejakintzetan onetsia izan zan (Licenciado en Derecho Civil y canónico) Salamanka'n 1892 urtean. — 1903'an Tolosa'k bere Madrilerako Alduntzat (Diputado á Cortes) autetsi zuan.—«Grand officier de l'Ordre du Medjidie» delakoaren gurutza daka. — «Euskalzaleen Biltzarrta» ta «Euskal-Esnalearen» ta Bayona'ko «Cercle des Etudes Basques» euskal-lagundien buru-oi da. — Petrograd'eko Vola-

püktzaindia'ren kide zan. Paris'ko «Société de Linguistique» lagun ta Bordel'eko (Burdeos) Izkeltzaindia'ren ta Madrileko «Academia de la Historia» deritzayonaren uŕgazle da, ta «Eusko-Ikaskuntza»-ren Buru-ordeko,—«Revue Internationale des Etudes Basques» agerkariaren Buru ta zuzentzaile da.

IDAZKIAK: 1905. *Biblioteca Vascongada*. Un manuscrito que se creía perdido. Donostia'n, «Correo de Guipúzcoa»-ren iraŕkolan in 8 eíneko 7 oři.—1905. *Notas bibliográficas* acerca de la primera edición del libro del capitán Ivan de Perochegui. Donibane Lohitzun'en (S. Juan de Luz) Dargains'en iraŕkolan, in 8 eíneko 7 oři.—1906. *Un catecismo vasco de 1759*. Paris'en Guilmoto enean in 8'ko 78 oři.—1907. *Obras vascongadas de Joannes d'Etcheberri* (1712), Paris'en Paul Geuthner baitan, in 4 eíneko LXXX - 324 oři Holanda'ko txaŕtelez.—1909 *Los Refranes Vascos de Sauguis* Bayóna'n A. Lamaiagnère'en iraŕkolan, in 8'ko 52 oři.—1919. *Apéndice á los Refranes de Sauguis* Paris'en, Paul Geuthner baitan, in 8'ko oři.—1911. *La Tercera Celestina y el Canto de Lelo*. Paris'en H. Champion baitan, in 8'ko 20 oři.—1912. *Les Etudes basques*. Leur passé, leur présent, leur avenir (Conférence faite au IVe Congrès historique et archéologique du Sud-Ouest de la France) Paris'en Honoré Champion baitan in 8'ko 22 oři. (Beste ateraldi bat, Biarritz, Soulé'ren iraŕkolan, urte bertan).—1912. *Una fuente del «Guero»* (Axular imitador de Fray Luis de Granada) Donibane Lohitzun'en, J. Dargains baitan, in 8'ko 15 oři.—1914 *La literatura poética vasca* (Rectificaciones necesarias). Bayona'n Foltzer baitan, in 8'ko 11 oři—1915. *Historia ó novela*. El herrador vascófilo José Pablo Ulibarri. Donostia'n Martín, Mena ta abaŕ'en iraŕkolan, in 8'ko 7 oři.—1918. *Estado actual de los estudios relativos á la lengua vasca*. Discurso pronunciado en el Congreso de Oñate el 3 de Septiembre de 1918. Bilbo'n Elexpuru'ren iraŕkolan, in 8'ko 35 oři.—1919. *Lengua internacional y lenguas nacionales*. El «euskerá» lengua de civilización (Conferencia pronunciada en 19 de Abril de 1919 en Bilbao). Donostia'n, Martin, Mena ta abaŕ-en iraŕkolan, in 8'ko 19 oři—(Beraren bigaŕen ateraldibat ágitaratu da 1920'an, «Junta de Cultura Vasca» delakoaren aŕtaz Bilbo'n, «Bilbaina de Artes Gráficas» iraŕkolan: in 8'ko 23 oři.—1919. *El Refranero Vasco Tomo I*.

Los refranes de Garibay. Donostia'n. Martín ta Mena'ren  
iraíkolan. in 8'ko 80 ofi.

Gañera, daítaizten agerkarien lankidea izana da: «Correo de Gui-  
púzcoa», «Gaceta del Norte», «Pueblo Vasco» (Donosti'koa),  
«Euskal-Erria», «Euskalefiaren Alde», «Revue de Linguistiqu-  
que», «Revue Internationale des Études basques».

Euskaltzaindu zan Oñati'n 1918'ko Batzañean, guzien abotsez.

ETXEA: 1, Centenario, San Sebastián, ta «Urkijo baita», Saint-  
Jean de:Luz, B.-Pirénées.



## GURE ILAK.-Nuestros difuntos.-Nos morts

### I Domingo de Aguirre

Igaro dan urtariaren 14'an Jainkoarenganatu zitzakun gure adiskide ta lankide tolesgabe guñgari, Domingo de Agüe. Aren doai edera ta euskaljakintza ugaria ots audienez zabaldu beañko ziran orduan itzali zan.

Ezta au leku egokia Agüe'ren lana astiro ikeñtzeko. Egikizun ori Donostia'n egin zan jofailaren 25'an, «Euskal-Esnalea»ren arduraz bete izan zan «deduzko batzáfean». Egun artan Carmelo Echegarai edeztilari ta iztun ospetsuak alde batetik, eta gure Buru dan Azkue jaunak, bestetik, bere itz sañkofez idiki zizkiguten gure adiskidearen biotzaren ateak, leñ onen idazleak nolabait Agüe'ren irakurgaiñtzazko doai aipagariak ezagutarazten zitualarik. (1).

Bera zeruratzearaz utzi dizkigun idazki argitaratu gabeen aítean auñkitu dira bere gaztezaroko neuñtitzak. Oleñki oriek argitara ematea Euskaltzaindiak bere gaiñ aítu du.

¡Euskaltzaindi jaio-befi au bere lanaz lagundu ezin dezakean Agüe maiteak zero goitik uñgaz dezala!

### II Pierre Broussain

Iñork uste etzuan orduan, jofailaren azken egunetan, Pierre Broussain, gure lankide gañtsua il zan Orthez'en. Ona, aren adiskide batek, Bayona'ko «Eskualdun»ean eriotza biaramonean ziona:

«Ezagutu duten guziek badakite zenbat zen gizon ona, chehea, mintza-errecha, zuzena, ichila, espantu gutikoa, gozoki eta lañoki

(1) An euskeraz esan zanaren zati bat, prantzez eñderaz auñki dezakezu *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, jofailaren zenbakian: Domingo de Aguirre par Pierre Lhande (148-160 ofietan).

guzien meneko emaiten zena. Bereziki gerlako egunetan, zerbeit berri edo ciehetasun edo laguntza galdez herrikoetcherat zoazin Hazpandarrek ez dute ahantzia, zoin maiz han ikusten zuten beren auzapeza, zoin errechki mintzatzen ahalzuten, zoin gogotik bere ahalak oro egiten zituen heinentzat. Iduri zuen egiazki ez zuela deus bertze lanik, ez zuela bertze grīñarik bere herritarren beharrerrez beizik.

Kampokoekin zena, etchekoekin ere bardin zen, beti on, beti artaz bethea, beti bere eginbideari jarreikia. Hazpandar egiazkoek bezala, erlisioneari hainiz atchikitzen zion, ez bakarrik ahoz, bainan bere urhatsetan ere. Baitire erlisionea maite dutenak bertzeentzat, harek, bertzeentzat on dena beretzat ere hala zaukan.

Bainan saila hau hasia dut zueji erraiteko bereziki zenbatetaraino, eta zer khar handirekin, agertu izan den beti eskualdun.

Ez dakit baditekenetz nehor hori baino gehiago atchikia gure Eskual-herriari. Maite zuen Eskual-herria bere mendi zelai eta itsasoarekin, bainan bereziki maite zuen bere mintzaira choragariaren gatik».

Pierre Broussain Azpafnén jaio zan 1869'ko agofilaren 3'an. Bere ikaskintzak lenik Lafesoron egin zituan, gero Akizen (Dax) ta azkenik «Tivoli» Bordele'ko Aita Jesuiten ikastetxean. Senda-kintza Parisen ikasi zuan, ta gero bere jaioteríra itzuli zan. An laster bere erítarak auzapez edo udalburutzat autatu zuten, ta ardura ori amalau urtez guzien gogora betez geroz, azkenik, euskaltzaiñ izendatu zutenean, bere sail beñiari obeto jañaitzeko, utzi zuan; baña alere, erítferi laguntza emateko, Aldun edo «kontseillari geien» gelditu nai izan zuan. Azpandañ guziak betiko aren itzaldi edeñez oroituko dira, batezere ango ileñian, igaroko azila-ren 11'n «Gudako ilez» egin zuanaz. Oraindik il baño len egun gutxi zala, Ezpeletan bildurikako nekazarien auñean itzaldi edeñ bat eman zuan «aŕbola landatze beañaz». Itzaldi oriek besteren batek eskutitzu edo berak argitaratu eztitualako tamal negafgafia da. Agian, utzi dituan euskal txaŕtelen artean bere euskera edeñez ezagutarazi dezaketen apuñka batzuk aufkituko ditugu, ta bitaŕtean gure biotzean gordeko degu aren maitetasun eta euskalduntasunaren oroinmena.

